

laburrean

X A K E A

■ Felix Izetak irabazi du Alcorcongo Maratoia

FELIX IZETA euskal xakelariak irabazi du Alcorconen (Madril) jokatu den xake maratoia. Guztira 86 jokalaritari ziren 12 ordutan, horien artean zenbait maisu handi eta nazioarteko maisu. Felix Izetak maisu handi kategoria dauka, eta maratoi honetan Zlotnik errusiarra eta Strikovic jugoslaviarra gainditu zituen. Garaipenagatik ehun mila pezeta eta garaikurra eskuratu zituen Izetak. X

T E N I S A

■ Sampras eta Graf nagusi US Openean

US Open torneoa ez du ezusterik eman, eta bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan lehen zerrendaburuak izan dira nagusi. Gizonezkoetan, Pete Sampras estatubatuarak uste baino errazago gainditu zuen finalean Michael Chang herrikidea: 6-1, 6-4, 7-6 (7-3). Hasieratik dominatu zuen Samprasek joko, eta ez zuen inongo momentutan garaipena arriskuan eduki. Emakumezkoetan, Steffi Grafek izugarritzko partidua egin zuen, eta Monica Seles 7-5, 6-3 gainditu zuen. Hau izan da alemaniarrek lortu duen Grand Slameko 21. titulua. X

M E N D I A

■ Shisha Pangmarako arabarren espedizioak oinarritzko kanpamenturako bideari ekin dio

SHISHA PANGMA mendirako espedizio arabarrak oinarritzko kanpamenturako bideari ekin zion igandean, eta bihar ailegatzea espero dute. Oiarzabal, Vallejo eta Rojok fax bidez esan dutenez, zenbait arazo izan dituzte bidean, «eguraldi txarra dela-eta mendietan elur asko egiten ari baita». Dena den, osasunez ondi eta izugarritzko moralarekin daudela diote mendi-goizale arabarrek. X

S U R F A

■ Flavio Padaratz izan da onena Zarautzen

FLAVIO PADARATZ surfari brasildarrak irabazi du joan den astean zehar Zarautzen jokatu den Pukas Saria. Igandeko finalean, Padaratzek maila ederra erakutsi zuen, eta hiru puntuko aldea kendu zion Damien Hardman australiarri. Hirugarren Danny Melhado estatubatuarra izan zen. Hau izan da brasildarra Zarautzen nagusitu den bigarren aldian jarraian. Iaz Fabio Gouveia herrikidea izan zen onena. X

Futbola

Haizea burura igo gabe

Javier Iruretak dio bi eskailera baino ez dituela igo Realak

Realekoak lasai daude. Bitik bi partidu irabazi dituzte, baina ez zaie haizea burura igo. «Liga hasi besterik ez da egin», dio Irureta entrenatzaileak, «eta bi eskailera baino ez ditugu igo». Mild eta Mutiu titular aritu ziren lehendabizikoz Valentzian, eta Iruretaren ustez ongi moldatu ziren biak.



Iruretaren ustez, Mild eta Mutiu ongi moldatu ziren Valentzian. JAGOBA MANTEROLA

E. Esnaola / Donostia

REALA da, Tenerife, Barcelona eta Racingekin batera, Ligako lehen bi jardunaldietan garaipenak lortu dituen ekipo bakarra. Baziren jada 15 urte lehen bi neurketak ez zituela irabazten Realak. Eta, jakina, gustura dira talde txuri-urdinekoak. Baina lasai daude, euforiarik gabe. «Liga hasi besterik ez da egin, eta bi eskailera baino ez ditugu igo. Eta eskailera oso luzea da», zioen atzo goizean Javier Iruretagoiena Irureta-k.

Konfiantza emango omen die hasiera honek Realekoei. «Dudarik gabe emango digula konfiantza. Bai jokalariei, zaleei,

zuzendaritzakoei, komunikabideei, entrenatzaileei...». Ongi ikusi du bere ekipoa Iruretaren arte, «orekatua». Atzealdea ongi aritu da bere ustez, «eta aurrealdean baditugu gauza batzuk hobetzeko. Sartutako bi golei etekin handia atera diegu. Aukerak asko izan ditugu, alferrikerik galduz, eta nik uste hortxe hobetu beharko dugu entrenamenduetan».

Hakan Mildek eta Mutiuk larunbatean jokatu zuten lehendabizikoz titular Realarekin. «Mildek guk espero genuena egin zuen. Beretzat besteentzat baino bero handiagoa zegoen Valentzian, kontuan hartu behar baita Suediatik datorrela. Borrokalaria

dela ikusi genuen, toki askotan egoten dena. Gainera, ia baloi guztiak ongi ukitu zuen. Lan ona egin zuen, beraz, Hakan Mild suediarrek. Mutiu ere ongi aritu zen, baina gero nabaritu egin zuen nekea eta aldatu egin nuen».

Bihar goizean Legazpin entrenamendua • Realak, ohi ez bezala, ez du atsedean egunik izango aste honetan. Egun guztietan entrenatuko da. Gaur goizean Zubietan. Bihar goizean, berriz, Legazpin. Ostegun arratsaldean Zubietan. Ostiralean bainu eta masaje saioa. Larunbat goizean Anoetako estadioan atekak itxita. X

Rugbya

Castres hobea izan zen

Miarritzeko taldeak 42-24 galdu zuen Castresen eta Baionak 44-6 irabazi zion Peyrehoraderi

Koldo Alduntzin / Donostia

FRANTZIAKO Liga txapelketaren bigarren jardunaldian esku hutsik etorri zen Miarritze Castresetik, 42-24 galdu baitzuen. Hastapeneko 30 minutuetan egin zuten miarriztarrek jokorik onena eta zati horretan egin zuen Bonnetti gazteak aurreneko entseguak, 6. minutuan. Zigor kolpea azkar jokatu eskura eta Mazasek atzelariari eman zion. Castresetik, ordea, aitzinean erakutsia zuen sendotasuna ordurako eta 32. minutuan egin zuen entrenamenduko entseguak.

Zigor kolpe batzuk ere eragin zituzten, eta ondorioz 22-13 aurretik atsedenera. Bigarren zatian, baloi gehiago irabazten zi-

tuzten etxekoek eta uztartze bilduan arazoak zituen Pedron-Boule-Miura lapurtarren lehen lerroak. Horregatik, Pueloto eta Fitzgerald zelairatu ziren.

Hiru entsegu egin zituzten bata bestearen atzetik Castresekoek 20 minututan, eta erabakita utzi garaipena. Gainera, Paillak-ek oso huts gutxi egin zuen zigor kolpeetan eta aldea zabaldu egin zuen. Norgehiagokako azken entsegu Ronson miarriztarrek egin zuen 75. minutuan. Laburbilduz, Castres dominatzaile izan zen eta Miarritzek ezin izan zion erantzun.

Baionak lehen zatian erabaki zuen partida • Larunbat gauean oso ikusle gutxi bildu zen

Saint Leonen, Baiona-Peyrehorade partida ikusteko. Laugarren poule-ko 2. jardunaldia zegoen jokoan eta Baiona nagusitu zen 44-6. Peyrehoradek mailari eustea du helburu eta Baionak A1 multzora igotzea. Honekin esan nahi dugu aldea nabaritu behar zela zelaian eta hala gertatu zela. Baina baionesek alde handiz irabazi bazuten ere, ez zuten joko ikusgarririk egin.

Aurreneko zatian lau entsegu egin zituzten Prizok (16. minutuan), Ausselek (27.ean), Billaud-ek (30.ean) eta Berazak (35.ean). Landesek moztu egin behar zuten nola edo hala lapurtarren joko, eta horregatik lisakar dexente gertatu zen. Atsedenean 32-6 ziren aurretik txuri-

urdinak.

Bigarren zatian, Abbadie gazteak entsegu egin eta zelaia utzi behar izan zuen lesionatuta. Etenaldi ugari gertatu zen zati honetan; batzuetan jokalariren lesioengatik eta aldaketengatik, eta beste batzuetan txartelengatik.

Peyrehorade taldeak gogor ekin zion aitzinean, amorruez jokatu. Zenbait momentutan ez zuen Baionak erreakzionatu eta bere zelaian aritu ziren jokatu.

Jokoak ez zuen ikusgarritasunik, eta partida erabakita zegoenez, ahalik eta azkarren amaitzea hobe. Perrier entrenatzailea ez zen saint Leonen izan, bi egun eritexean iragan baititu. X

UEFA Koparekin hasiko dira gaur Europako txapelketak

Valencia-Bayern Munich izango da kanporaketa garrantzitsuena

Erredakzioa / Donostia

EUROPAKO futbol lehiaketak gaur jarriko dira martxan. UEFA Kopako lehen kanporaketako joaneko 32 neurketak jokatu dira. Bi aste barru, irailaren 24an, jokatu dira itzulikoak.

Valencia eta Bayern Munich taldeek jokatu duten neurketa da lehen kanporaketa honetako erakargarriena. Alemaniako taldea txapelketa honetako egungo txapelduna da, eta aurtengo denboraldian bi taldeak egiten ari direna kontuan izanik, neurketa hau aurrera ateratzeko bera dagoela ondoen dirudi. Bayern taldea Alemaniako Ligako lehen postuan dago bost jardunaldi jokatu ondoren, partidurik galdu gabe, gainera.

Valencia taldean, gainera, beste tirabira bat sortu zen atzo. Luis Aragones entrenatzaileak deialditik kanpo utzi zuen Romario jokalaria, eta honek ez zuen ondo hartu erabakia. Aragonesek esan zuenez, ondoen dauden jokalariek sartu ditu deialdian. Romariok, berriz, entrenatzaileak jarraitzen bazuen berak taldea utzi egingo zuela adierazi zuen. Geroago, ordea, entrenatzailearen erabakia onartzen zuela eta taldean jarraituko zuela adierazi zuen.

Aipatu partidu horretaz gain, badira beste neurketa aipagarri batzuk UEFA Kopako lehen jardunaldi honetan. CSKA Mosku-Feyenoord, Roma-Dinamo Mosku, Celtic Glasgow-Hanburgo eta Arsenal-Borussia Moenchengladbach dira neurketa horietako batzuk. X